

O Katalunia!

EZKER ABERTZALEAK beste urrats esanguratsu bat eman du alderdi politiko berriaren oinarriak zehazterakoan. Altsasuko Adierazpenaren ondotik finkatutako agerpen indartsu eta zainduarekin taularatu da, mezu tinkoarekin: argi gera bedi prozesua era batuan egiten ari dela eta ez duela atzera bueltarik. Ez da espero bakorik izan Iruñeko aurkezpenean, eta esango nuke galdera ikur bakarra gelditu dela airean: erakunde berriaren estatutuek zein terminologiarekin beteko dute Alderdien Legera egokitzeko iragarpena?

Fase politiko berriari begira, helburu politikoak lortzeko biolentziaren arbuiz oso garbia egiten da. Michell printzipioei jarraiki, biolentzia mehatxu gisa erabiltzearena ere sendo ukatzen da eta honek ETAK bake prozesuaz egin dezakeen zaindari lana errotik deusezten du. Hemendik gutxira, beraz, erakunde berriaren estatutuak ezagutuko dira eta hortik aurrera egin beharreko urrats nagusiak ez dira jada ezker abertzalearen esku izango, nahiz eta oraindik terminologian maniobra tarte zabala geratzen zaion. Orain inoiz baino gehiago, begirada guztiak ETari zuzenduko zaizkio, honek Bruselako Adierazpenari –eta Gernikako Itunari–



JON URBE/ ARGAZKI PRESS

emango dion erantzunaren zain. Ezker abertzalearen asmo berriak erabat daude lotuta erakunde armatuak iragarriko duenarekin.

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAK lurralde honi buruzko hauteskundeetako inkesta argitaratu ondoren, datu bat oso deigarria da: Gernikako Ituna izenpetu dutenek ordezkartzaren ia %34 lortuko lukete. Dena da oso airean, jakina, nagusiki oraindik ez dakigulako ezker abertzalea izango den edo ez, baina itxura guztien arabera lehia oso sendoa izango da Gipuzkoan. Jasango dugun inkesta zaparradaren baitan hau lehenetakoa besterik ez da, baina joera nagusien berri eman dezake. Ezker abertzaleak parte hartzeko aukera badu bederen, aliantza berriak gau-

zatuko direla dio geziaren norabideak: Gernikako Itunekoek norabide berean doazela erakutsiko ote dute? *Batu gaitzen* bai, baina norekin, azpiegitura erraldoien defentsan PSErekin ala ezkerreko abertzaleekin? Edo PSE-PP aliantzak eutsiko dio oraindik? Benetan hauteskunde demokratikoak badira, panorama interesgarria dator, Gipuzkoan zein Hego Euskal Herri osoan.

KATALUNIAKO emaitzetatik atera al daiteke ondoriorik Euskal Herriari begira? *Deia* egunkariaren asteleheneko titulua ikusita, iraganera –albiste zen neurrian– eta etorkizunera begira ari zen nabarmen: “CiU barre a los socialistas” (“CiUk aurrez aurre eraman ditu sozialistak”). “Sozialistak” beharrean, erabil zezakeen PSC, kazetaritzaren ikuspegitik askoz zehatzagoa. Baina tituluari ukitu profetikoa eman eta lerro artean “EAJ barre a los socialistas” irakurtzeko aukera ere eskaini zuten. Bai, ezagun da hura beste lurralde bat dela, baina urduritasuna libre da, eta PSEk badu urduri izateko arrazoirik. PPK, aldiz, irribartsu agertzekoa. Eta euskal independentismoak ere argi ikusi du, beste behin ere, banaketaren emaitza zein den.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an elkarrekin elkarrekin emana da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundian laguntzarik ezker arteko estatusa da ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskararekin eta jolaintza ustertunak jartzen dira ondorengo esku.